

Iratzeder hil da



ALBERTO ELOSEGI

Xabier Diharce "Iratzeder" (Donibane Lohizune, 1920) idazlea eta euskaltzaina urriaren 13an hil zen 88 urterekin. Lapurdiko Beloke monasterioa izan du bizitoki iratzederrek fraide beneditarra baitzen. Poesian idatzi zituen lanik ezagunenak, baina antzerkia eta saiakera ere egin zituen.

Veleia gora eta behera

JOAKIN GORROTXATEGIK Iruña-Veleiako iruzurra denaren susmoa agertu zuela esan genuen joan den asteen. Bada *Iruña-Veleia III. Milurtea Proiektuak* komunikatua atera du. Arabako Foru Aldundiak sustatutako Ikerketa Batzordean Aldundia bera, Veleiako aditu taldea eta EHUko hainbat irakasle ziren eta komunikatuak dioenez, isilpeko protokoloa sinatua zuten. Ikerketa Batzordeko kide Joakin Gorrotxategik isilpeko protokoloa hautsi omen du eta kontzeptu kezagarria erabili: "iruzur lotsagarri eta penagarria" izan daitekeela Veleiako aurkikuntza. Komunikatua osorik irakurtzeko: www.veleia.com.

Pierre Urteren lanak enkantean saldu dira

LAPURTARRAK 1715. urtean idatzitako *Grammaire cantabrique* eta *Dictionarium Latino-cantabricum* lanak enkantean saldu dira 72.000 euroren truke. Erosle pribatuak eskuratu ditu hiztegia eta gramatika. Ricardo Gómezen *Filoblogia* blogaren (www.blogari.net/filoblogia) bidez izan dugu horren berri. Gómezek abuztuaz geroztik zekien enkantean jartzekoak zirela lan horiek. Isilik egotea erabaki zuten, ustez espekulatzailerik ahalik eta gutxien jakin zezaten. Blogariak ez daki (guk ere ez) Euskal Herriko erakunderen batek enkantean parte hartu zuen ala ez.

TALAIAN

MCCren etorkizuna

Azken hilabeteetan Mondragon Korporazio Kooperatiboa (MCC), arrazoi batzuzengatik edo besterengatik, polemika iturri izan da. 100.000 lanpostu inguru dituen taldearen barruan gertatzen denak garrantzia dauka bertako langile eta enpresentzat, baina baita euskal ekonomiarentzat ere.

Globalizazio aroan, MCCk mundu osoan ireki ditu lantegiak eta jendeak deslokalizazioa aipatu du, kostu gutxiagoko ekoizpena eta lan baldintzen kalitate nolabaitekoa azpimarratuz. Bi enpresek (Irizar eta Ampo) taldea utzi dute. Eroskiren etorkizunak oraindik eta indar handiagoa hartu du iritzi publikoan sinatutako eta anonimo bidalitako artikuluen bidez. Horietan lurraldetasuna, taldetik ateratzea, enpleguaren kalitatea eta printzipio kooperatiboan mantentzea ezbaian jarri dira. Bestalde, Euskadiko Kutxak garden asko adierazi du banku amerikar garrantzitsu baten porrotak eta higiezin enpresa baten ordainketa-etendurak eragin diotela.

Hala gauzak, MCC bezalako talde kooperatiboari eskatzen zaio multinazionalen artean nagusitutako globalizazio neoliberal eta basatiari amen ez esateko eta kontsekuente izateko printzipio kooperatibekin (norbanakoaren, eta orokorrean, gizartearen zerbitzura egon direnak). Taldearen etorkizunak zera esan nahi du: lurraldetasuna eta enpresa entzutetsuak mantentzea; deslokalizazioa Euskal Herriko enplegua mantentzeko baino ez egitea; enpleguetan kalitatea mantentzea Euskal Herrian, Espainiako Estatuan, Txinan edo Indian; prekaritatearen eta lan esklabotzaren aurka egitea. Azkenik, MCCk Euskal Herriari on egingo lioke Iparraldean inbertituko balu, horko gazteek Frantziara emigratu behar baitute lan bila.

Juan Mari Arregi

BAHEA

[Saltsa polita eragin du Mikel Hernández Abaituak *Volgako Batelariak* blogean](#)
[Hobe beharrezko kritika Euskaltzaindiari izeneko artikuluekin:](#) "Oposiziorik gabeko gobernu oso erraz desbidertzen den bezala, euskara-erabiltzaileen kritikarik ezak ez dio onik egiten Euskaltzaindiari. Une honetantxe inoiz baino arrisku handiagoa ikusten diot Euskaltzaindiari erabaki okerrak hartzeko, perfektuegia izan nahi izateagatik. Linguistikoki perfektuena dena ez da beti pragmatikoki eta soziolinguistikoki onena. Euskaltzaindiak onartu egiten die gure arbasoei mailegu asko hartu izana, 'kabitú' adibidez (Euskaltzaindiaren arauak, 718. or.), eta ez digu guri eskubide berbera eman nahi beste batzuk hartzeko, tradizio handirik gabeko 'ranking' eta 'royalty' bezalakoak arazorik gabe onartzen dituen bitartean. Biziki absurdoa da. Hobe beharrez egindako kritikak behar ditu Euskaltzaindiak, zentzuzko disidentzia handiagoa, eta gomendatutako gauza batzuk soziolinguistikoki gaitzetsi direla konturatu behar luke, eta onartu, nahiz eta *Berria* bezalako egunkari saiatuek eta argitaletxeetako zuzentzaile finek (hauek ez dute desobeditzerik profesional onak izan nahi badute, noski) egoera errearen ikuspena lausotzen duten".

Gezurrak

LARUNBATEAN hirukoak eta Aralarrek protesta bilkurak egingo dituzte iragarritako kontsulta beharrean. Duela urtebete baino gehixeago Ibarretxe lehendakariak kontsulta data iragarri zuela Eusko Legebiltzarrean, 2008ko urriaren 25a. Hilabetea joan hilabetea etorri, sasi guztien azpitik eta gainetik jo behar bazen ere, kontsulta egingo zela entzun genion goizez eta gaez. Errege biluziaren ipuinarena gutxitan irudikatuko zen hobeto; desberdintasun bakarra izan da, Ibarretxe antzezlanetan aritu dela, helburu egoki eta justu batean atzean bada ere.

Batzuetan, irakurle eta herritarrek egiten duten bezala, administrazioetik ere deitzen dute gure aldizkarira, zerbait gaizki egin dugula esanez, edo gezurra esan dugula, edo ez dela erabat zehatza esandakoa edo... Batzuetan arrazoiz, beste batzuetan ez. Baina ni harritzen nauena da norberaren balizko gezur txikia hain garrantzitsu izatea, politikagintzan eta agintarien artean herritarrak gezurra bata bestearen atzean sumatzen duenean. Edo ez al zekien Ibarretxe lehendakariak gezurretan ari zela iragarritako kontsulta egingo zela behin eta berriz errepikatzen zue-nean? Edo ez al zekien Jose Luis

Rodriguez Zapaterok krisia gainean zegoela berau ukatzen zuenean? Ez, Aznarrek ere ez zekien Iraken ez zegoela suntsiketa handiko arma kimikorik berau erasotzearekin bat egin zuenean.

GEZURRIK borobilenak finantza eta ekonomiaren munduan ekoiztu dira. Konfiantza eza baldin badago, hori norbaitek ziria sartu duelako da, hau da, gezurra esan duelako, eta konfiantza galerarako, gainera, gezur

Eta AHT? Kaltea estaltzen da, baina gaitza da irudikatzea tren pasatzeko Euskal Herrian egin behar diren lur azpiko ia 100 kilometroak ekologikoki onuragarriak direnik

bat baino gehiago behar ohi da. Horregatik jakin dugu, konfiantza eza hori finantza paketeetan bilduta garraiatu dutela batetik bestera, batzuek aberats bilakatuz eta munduarentzat krisiaren aberaska izango zen aberastasan birtuala sortuz.

AURRERAPENA, zientzia eta ekologiaren paketetan bildutako gezurren estilokoak. Nuklearrak adibidez, hiru hamarkadatan honako ziklo egin du Euskal Herrian: beharrezko energia ezinbestekoa izatetik (Lemoiz), arriskutsura pasatu zen, eta orain berriz beharrezko bilakatuko da akaso.

Aldaketa klimatikoarena ere paradigma da gezur eta iruzurraren mundu honetan. Badira diotenak berotze kontu hau ziklikoa dela, gure planetaren bizitzaren kontua, orain bero gero hotz. Lurraren egungo biztanle kopuru eta kontsumo maila ez da ziklikoa, ordea, eta zientzialarien artean dagoen kontsentsu maila handiak, Lurra xahutzen ari garela adierazten du. Oraingoan oso sinisgarria dirudi. WWF (Naturaren Nazioarteko Mundu Fondoa) nazioarteko erakunde ekologistak berriki gogorarazi duenez, gainera, bertzea azkartzen ari da eta itsasoa aurreikusitako metro erdia baino metroa igoko da mende bukaerarako. Al Gore hemen izan zen eta bera-ri buruz asko hitz egin bazen, aldaketa klimatikoaz gutxi.

Eta AHT? Kaltea estaltzen da, baina gaitza da irudikatzea tren pasatzeko Euskal Herrian egin behar diren lur azpiko ia 100 kilometroak ekologikoki onuragarriak direnik.

